

IRULEGI

ipar
Euskal Herriko
arno

2025 - 2026





BIDAIA PAREGABEA NORTASUN HANDIKO LURRALDEAN

MENDI MAZELAN KOKATUTAKO MAHASTIA

Badira eskualdeak bidaiarazten baitzaituztetenak beren izenaren aipamen hutsaren bidez. Ipar Euskal Herriko mendien oinean, Donibane Garazitik hurbil, Irulegiko mahastia horietako bat da.

Lur mailakatueta antolatuak Pirinioetako malda zut-zutari egokitzeko, mahasti lursailek eta inguruko paisaiek ezagutza ederrak iragartzen dituzte. Mendiko mahasti ttipi horretatik ibiliz, mahatsaren eta lurren zale errabiatuak diren gizon eta emazteak ezagutuko dituzue.

Elkartasun izpirituz, Deiturak hirurogei bat ekoizle biltzen ditu, 22 etxalde beregain eta soto kooperatiba barne.

* 2024ko zenbakiak

JDB GERIZPEKO IBAR GASTRONOMIKOAK

Ossau-Irati ardi gasna eta Kintoa urdaiazpikoarekin ezin hobeki ezkontzen diren nortasun handiko arnoekin, Irulegiko mahastiak bidaia paregabea eskainiko dizue Ipar Euskal Herriaren bihotzean, zerbait berezkorik duen herrialdea.



ESKAPALDI ENOTURISTIKOA

BISITAK ETA DASTATZEAK

- Bisitak eta dastatzeak labelizatutako etxalde guzietan eta sotoan.
- Eszenografia gunea eta erakustaretoa.
- Etxaldeko ekoizkinekin proposatutako dastatzea.

IBILALDIAK MAHASTIAN

- **Lagunduak:** trotineta elektriko, joan-jinkari elektriko edota oinez bidexka pedagogiko batean. Ibilaldien ondotik, dastatzea.
- **Sarbide libreko ibilaldiak:** Terraventura altxor bilaketa, ibilaldi audiogidatuak mahastietan, bizikleta itzulia, ibilaldi seinatuak, begiratokiak...

EKITALDIAK

- "Laborantza-edantegia" gaualdiak etxaldean (udan, ostiral arratsetan).
- Ibilaldia mendian eta etxaldeko bazkaria artzain-mahastizain batekin.
- Donibane Garaziko eta Baigorriko bisita gidatuak.

EGONALDIAK ETA ATERALDIAK

- "Ipar Euskal Herriko Lurrak" ibilaldia.
- Taldeen arabera egokitutako ateraldiak eta egonaldiak.

OSTATALEKUAK

Mahastizainen ostatatzeak eta ostataleku aukera zabala: hotelak, arrotz gelak, landetxeak, talde aterpetxeak edo kanpalekuak.

JATETXEAK

Jakiak eta arnoak ezkontzea, tokiko ekoizkinak lehenesten dituzten kartak... Jatetxeek euskal gastronomia ohoretan ezartzen dute.

GERTAERAK

- Arno edantegia "Citadelle en Scènes" antzerki jaialdian, agorri bukera, Donibane Garazin.
- "Arno bat terrazan" IEZI ateraldia: Irulegiko lurren berezitasuna, dastatzea (geologo eta enologo batekin). Agorrilean edo irailean.



MAHASTIARI BURUZKO ARGIBIDE GEHIAGO...

DONEJAKUE BIDEAN...

Orreagako fraideek zuten mahastia sortu 12. mendean, Donejakue bidean zebiltzan erromesak goxatzeko helburua zuten arnoak ekoiztuz.

Urdozko bizkondearen ekimenez 16. mendetik goiti, mahastia azkarki garatu zen 19. mendea arte. 1980 eta 1995 artean, mahastia guztiz berpiztu zen eta landaketa eremuak hirukoiztuak izan ziren. Gaur egun, Deitura eremuak Donibane Garazi eta Baigorri inguruko 15 herri biltzen ditu.

-  **1945eko abenduaren 17a:** Irulegiko Arnoen babeserako Sindikatuaren sortzea.
-  **1952 :** Irulegiko arnoen soto kooperatibaren sortzea.
-  **1970 :** Jatorri-Deitura Kontrolatua lortzea (JDK)
-  **1980 à 1995 :** landatze eremuak hirukoiztuak dira
-  **2013 :** Jatorri-Deitura Babestua lortzea (JDB)



MAHASTIAREN EZAUGARRIAK

- 270 hektareako mahastietan zabaldutako hirurogei bat ekoizle*.
- Bana beste 3-4 hektareako mahasti lursail ttipiak.
- Hiru koloretako arnoak: beltza eta gorria (Bordeleko beltza, azeria eta azeri handia), zuri idorra (izkiriota handia eta ttipia, zuri zerratua eta zuri zerratu ttipia).
- Eskuz lan egitea eskatzen duten lursail malkartsuak.
- Lur mota anitza: hareharri gorria, Keuper garaiko ofita, gisu-harria, eskistoa...
- Irailetik urri bukaera arte, udazken goxoek eta hegoaldeko haizeek ezaugarritzen duten mikro-klima.
- Kalitatearen eta ingurumenaren alde engaiatutako belaunaldien etika.

*2024ko zenbakiak



**“VIGNOBLES & DECOUVERTES”
LABELIZATUTAKO
ZERBITZU HORNITZAILEAK**

MAHASTIZAINAK

AGERRIA ETXALDEA

Hiribehere
64220 IRULEGI
05 59 37 41 06 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
agerria@wanadoo.fr 🍷🍷
www.visite-irouleguy.com
Daniel Dupuy mahastizaina da Irulegin. Badu 25 urte mahatsa lantzen duela 7 hektareako lur-sailetan (mahats mota beltzeko 5 hektarea eta mahats mota zuriko 2 hektarea) eta berak ditu arnotzen 2021etik goiti. Beribil elektriko (7 pertsona) ibiliko zarete Irulegiko herrian gaindi, ibilaldi-aurkezpen baterako. Familian, taldean edota bidaia antolatuan, zatozte une ahantzezinak partekatzeri mahastian.

AMEZTIA ETXALDEA

248 Germietako Bidea
64430 BAIGORRI
06 88 59 37 18 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
ameztia@orange.fr 🍷🍷
www.domaine-ameztia.com
2013an, Gexanek bere osabaren segida hartu zuen 8 hektareako etxaldean, gaur egun laborantza biologikoan landua, "ama" mahastia duela 50 urte landatua izan zelarik. Gexan eta Eñaut anaiek, azkena lehenarekin bildu baita, beren mahastiaren eta xaia-aren bisita proposatzen dizuete. Dastatzeari eskainia zaie barkarkako bisitariei. Etxaldeko ekoizkinekin proposatutako dastatzeari erreserbatuz.



APELXENIA ETXALDEA

30 Itharako bidea
64 220 AZKARATE
06 85 17 40 43 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
mirenjoan@apelxenia.eus 🍷🍷
www.apelxenia.eus
Miren eta Joan Apelxenia etxaldean plantatuak dira. 2024an, lehen mahats biltzeak egin zituzten. 8 hektarea lur dituzte, eta haien etxaldea Azkaraten dago, Donibane Garazitik bi urratsetan. Arnotzeko sotora bisita egitea proposatzen dizuete, baita arno dastaketa egitea ere. Gainera, zuzeneko salmenta egiten dute. Zatozte haien ardo zuri eta beltzak dastatzera!

BORDATTO ETXALDEA

450 Bordattoko Bidea
64220 JATSU
05 59 49 18 22 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
bordatto@orange.fr 🍷
www.domainebordatto.com
Mahastizain-enologo lanbidearekiko eta herrialdearekiko maitasunez, Pascale eta Bixintxo 2001ean jarri ziren. Euskal mendiaren bihotzean, etxaldean errezibituko zaituztete eta laborantza biologikoan ekoizten dituzten arnoak, sagarnoak eta sagar zukuak dastatzeari proposatuko dizuete. Haurrendako xoko bat bada. Udan, lagun arteko gaualdiez gozatu, etxaldean berean, kontzertuekin eta arno edantegiarekin.

BORDAXURIA ETXALDEA

310 Route Lamisone
64220 IZPURA
06 86 56 66 94 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
elorrireca@live.fr 🍷🍷
www.ferme-larralde.com
2014an, Elorri eta Brice mahastizainek familiako mahastiaren segida hartzeko (hirurogei bat urteko landatutako 8 hektarea) eta beren arno propioak sortzeko erabakia hartu zuten. Lurrarekiko errespetuak eta errabiak animaturik, beren mahastia laborantza biologikoan lantzen dute. Atsegin handiz errezibituko zaituztete beren arno zuri, gorri eta beltzak ezagutarazteko. Etxaldeko ekoizkinekin proposatutako dastatzeari, erreserbatuz.

BRANA ETXALDEA

17 Floquet plaza
64220 DONIBANE GARAZI
05 59 37 00 44 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
contact@brana.fr 🍷🍷
www.brana.fr
1984an sortutako BRANA etxaldea, Irulegi JDB, 17 hektareako lursail hertsietako mahastiaren zabaltzen da. Mahastiak BIO eta 3. mailako HVE ziurtagiriak ditu. Arnotzeko xaia aterpetzen duen dorre nafarra mahastiaren bihotzean kokatua da. Etxaldearen bisitak hitzordua hartuz udan zehar. Destilategia Ortaizeko ofizialeen herrixkan.

ETXONDOA ETXALDEA

107 Chemin d'Antxiburua
64220 IZPURA
06 71 40 99 08 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
etxondoa@gmail.com 🍷🍷
www.rouleguy.net/domaine-etxondoa
2020an, Olivier Irulegiko mahastian jarri zen, laborantza biologikoan. Donejakue bidean geldialdiko hiri gotortua den Donibane Garazitik kilometro batera kokatua da etxaldea. Zatozte mendi mazelan landatutako mahastiak ezagutzera eta egiazko arnoak dastatu. Zuzeneko salmenta. Bisitak erreserbatuz.



GUTIZIA ETXALDEA

104 Garakotzeko bidea
64430 BAIGORRI
05 59 37 52 84 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
domainegutizia@gmail.com 🍷🍷
www.gutizia.fr
2011n sortutako Gutizia etxaldea laborantza biologiko etxaldea da, neurri txiki-pikoa, Cécile eta Sébastien mahastizainek eramanez. Udan errezibituko zaituztete eta bidexka pedagogikoan bisita gidatu bat proposatuko dizuete (erreserbatuz). Mendira eta mahastietara ematen duen terraza gainean finkatutako etxe ibiltari bat ere aloka daiteke.

HEGALDACA ETXALDEA

1175 Giroiaenea bidea
64220 DONAZAHARRE
06 85 73 93 46 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
cbourrus@hotmail.com 🍷
www.rouleguy.net/domaine-hegaldaca
Une reconversion avec le besoin de retrouver du sens a conduit Christian Bourrus à créer le Domaine Hegaldaca dans son village natal. Les vignes d'une superficie de 2 ha ont été plantées en 2019 donnant lieu à une première vinification en 2021. Le vigneron vous accueille également dans son gîte "Guiraya" adossé au Chai du domaine.

MOURGUY ETXALDEA

75 Impasse Heguitoa
64220 IZPURA
06 78 84 89 25 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
domainemourguy@hotmail.com 🍷🍷
www.domainemourguy.com
10 hektareako Mourguy etxaldea belaunaldi bat baino gehiagoko familia-historia da. Mahastizainen harrera soil eta zintzoa, etxaldeko arno gorri, zuri eta beltzen dastatzeari eta salmenta. Arradoi mendiko mazelan lur mailakatu etako laborantzan landatutako mahastirako ikuspegi panoramiko zoragarria. Mahastirako ikuspegi zabala eskaintzen duten arrotz gelak eta landetxeak erreserba daitezke etxaldean.

IRULEGIKO SOTOA

255-288 Irulegiko Errepidea
64430 BAIGORRI
05 59 37 41 33 🇫🇷🇩🇪🇬🇪
contact@cave-irouleguy.com 🍷🍷
www.cave-irouleguy.com
1952an sortu zen Irulegiko Sotoa. Kultura-gunea da, eta bertan tradizioak eta balioak elkarrekin uztartzen dira paregabeko produktu bat emateko: Irulegiko arnoa. Irulegiko Sotoa urte osoan dago zabalik, eta jarduera enoturistikoak eskaintzen ditu: talde bisitak, ibilaldiak mahastietan eta trotineta elektriko ibilaldiak. Saltegi ederra eta urrikako dastaketa.

MAHASTIAN:

LABORANTZA-EDANTEGIA BORDATTO ETXALDEAN

Bordatto Etxaldea,
64220 JATSU
05 59 49 18 22 

bordatto@orange.fr
www.domainebordatto.com

Lagun arteko gaualdiak etxaldean, arno edantegia eta kontzertuekin. Laborantza biologikoan diharduten ekoizleen sagar zuku arnotua, Irulegiko arnoa eta taloak dastatzeko aukera.

Ostiral arratsero uztail eta agorrilean. Erreserbatuz.



TROTINETA ELEKTRIKOA MAHASTIETAN, TROTIRATY

Lutxiborda,
64220 DONAZAHARRE
07 89 20 57 55 
trottiraty@gmail.com
www.trott-iraty.fr

Zatozte Irulegiko mahastia eza-gutzero, trotineta elektrikoaz ibiliz. Landatutako lehen mahatsondoetatik lehengo dupa-sotora ibiliz, bistaleku ederrenetatik pasatuko zarete. Ezagutza-ibilaldi hori bururatzeko, sotoan dastaketa izanzen duzue, kooperatibako arno onez gozatzeko. Egun guzietan, aitzinetik erreserbatuz, 14 urtetik goitikoentzat. 34 eurotik goitiko prezioak. Iraupena: ordu batetik egun osora.

IRULEGIKO SOTOAREN BISITA-EZAGUTZA

255-285 Irulegiko Errepidea
64430 BAIGORRI
05 59 37 41 33 
contact@cave-irouleguy.com
www.cave-irouleguy.com

Anekdotak batetik bestera, Irulegiko sotoaren historian murgildu. Esperientzia luzatu upel-xaia-aren eta mahats biltegiaren bihotzean lasaiki ibiliz. Zuen bisita bukatu arnoen aurkezpena eta dastatzearekin. Iraupena: 1h. As-teleheneetik larunbatera, erreserbatuz. 4 eta 12 pertsona artean.

BISITA GIDATUA BIDEKXA PEDAGOGIKOAN GUTZIA ETXALDEAN

Garakotzeko bidea, 104
64430 BAIGORRI
05 59 37 52 84 
domainegutizia@gmail.com
www.gutizia.fr

Bidekxa pedagogikoa Deitura eta horren aniztasunaren eremuko mahastieta, mahastizainaren ahotik, ondorik dastatzea xaian. Bisitaren iraupena: 1h30. Uztail eta agorrilean, astearte eta ostiralean, 17:00etan. Taldeak > 6 pertsona: aste osoan zehar aukeran. Erreserbatuz.

MAHASTIAREN BISITA JOAN-JINKARI ELEKTRIKOZ AGERRIA ETXALDEAN

Hiribehera
64220 IRULEGI
05 59 37 41 06 
agerria@wanadoo.fr
www.visite-irouleguy.com

Beribil elektrikoaz lasaiki ibili Irulegiko herriaren eta mahastien artean, azalpenak entzunez. Herriaren historia, ohiturak ezagutu. Hango priore-etxetik, lur mailakatueta landatutako mahastiak miresten ahalko dituzue, leku zoragarria eta paregabea delarik (7 pertsona gehienez).

GAINERATEKO JARDUERAK:

IBILALDIA ARTZAIN BATEKIN (PEOTENIA ETXALDEA)

361 Peoteniako Bidea
64220 DONAZAHARRE
06 11 77 65 68 
contact@ferme-peotenia.com
www.ferme-peotenia.com

Ibilaldia artzain batekin eta bere artaldearekin bazkalekuan. Ondotik, tokiko ekoizkinez eta Irulegiko arnoez osatutako apairua. Mahastizaina ere den Jean-Michel artzainak artzaintza, tokiko ekoizkinak eta horiei lotutako kalitate urraspideak azalduko dizkizue...

UR BIZIA RAFTING

35 Lardapideko Bidea
64780 BIDARRAI
05 59 37 72 37 
contact@ur-bizia.com
www.ur-bizia.com

Rafting, kanoa puzgarria, Kayak, Raft ttipiak, Hydrospeed.



TALDEENDAKO EGONALDIK ETA ATERALDIK:

TALDEENTZAT ATERALDIK ETA EGONALDIK TURISMO BULEGOAREKIN

Herriko etxeko plaza
64430 BAIGORRI
07 85 04 53 62 
d.susbielles@otpaysbasque.com
www.en-pays-basque.fr/accueil/groupes

30 pertsona edo gehiago
Euskal Elkargoko Turismo Bulegoak egunak edo/eta egonaldiak antolatzen ditu, bakoitzari egokituz, baita "dena barne" formula ere. Irulegi JDB gerizpean diren ekoizle ugari errezibitzen zaituztete beren etxaldetan beren antzea eta lanbidearen zaletasuna partekatzeko (bisita-aurkezpenak, ondorik dastatzeko).

RESPYRÉES

Iputxainia
64220 AZKARATE
06 83 82 98 28 
mathieu@respyrenees.com
www.respyrenees.com

"Ipar Euskal Herriko Lurak" egonaldi ibilketa lagundua, Ipar Euskal Herria eta horren gastronomia ezagutzeko: JDB ekoizkinen dastatzea, bisitak (Irulegiko arnoen ekoizleak barne), erreki bazkariak mendian...

HIRIETAKO BISITA GIDATUAK:

DONIBANE GARAZIKO HIRI GOTORTUA

Charles de Gaulle plaza
64220 DONIBANE GARAZI
05 59 37 03 57 

saintjeanpieddeport@otpaysbasque.com
Bisitak proposatuak udan. Frantziako herri ederrenen artean sailkatutako Donibane Garaziko hiri gotortuak bere ateak irekitzen dizkizue. Herriko kontalari edo gidari hizlari batek hiriko historia aipatuko dizute. Bisita baten denboran, Donejakue bideko erromesa izanzen zarete, zitadelaren karrikan ibiliz.

BAIGORRI

Herriko etxeko plaza
64430 BAIGORRI
05 59 37 47 28 

baigorri@otpaysbasque.com
"Historia, elezaharrak eta onkerien artean", udan proposatutako bisita. Ipar Euskal Herriaren bihotzean, nortasun handiko herria ezagutu. Herriko kontalari batekin mintzatzeko ahalko zarete tokiko ohiturei eta historiari buruz. Eric txokolategilearen zaletasuna partekatuko duzue, zuen gormandiza piztuz. Ibilaldiaz baliatu Herriko historian gure etxeek duten garrantzia ulertzeko.



IBILALDIAK sarbide librean

TERRAVENTURA ALT XOR BILAKETA

Abiatzea: Irulegiko pilota plaza
1,30 - 3 km
www.en-pays-basque.fr/eu/sit/terra-aventura-irouleguy-petit-mais-costaud
Baigorriko turismo bulegoa
05 59 37 47 28 
baigorri@otpaysbasque.com
Irulegiko mahastia ezagutzeko altxor bilaketa. 3 kilometroko ibilbidea, bidexka eta xendren artekin. Jostatzeko, "Terra-aventura" aplikazioa deskargatu urrik.

IBILALDIAK AUDIOGIDAREKIN

Abiatzea: Irulegiko sotoa
Baigorri
www.cave-irouleguy.com/fr/page/26-randonnees-dans-les-vignes
05 59 37 41 33 
contact@cave-irouleguy.com
Ibilaldi seinatuak mahastietan, Irulegiko sototik abiatuz. Eskaneatzeko QR kodea mahastiaren historia entzuteko, Nicolas Falxaren ahotik, Deiturari buruzko memoria. Egutero helgarri, gau eta egunez.

► **Oronozia**: errex - 1,00 - 3,4 km

► **Okoxtei**: ertaina - 1,30 - 5,5 km

► **Mignaberry**: zaila - 2,00 - 7,5 km

IBILALDI AUDIOGIDATUAK



IBILALDI SEINALATUAK

Baigorriko Turismo Harrera
Bulegoa
05 59 37 47 28
baigorri@otpaysbasque.com

► **Etchaine**: errex - 2,20 - 7 km - 300m+. Abiatzea: Herriko Etxeko aparkalekua, Izpuran 
www.en-pays-basque.fr/randonnee/etchaine
Ibilaldiak lur mailakatuetan landatutako mahastien artekin ibiltzeko bidea eskaintzen du, Arradoi mendi mazelako lursailetan. Behin orientazio mahaira heldu eta, zuen inguruko mendietako lepoetara beha egon.

► **Arradoi**: errex - 2,45 - 6,3 km - 307m+. Abiatzea: Landa-bazkaria egiteko gunea, Izpuran 
www.en-pays-basque.fr/randonnee/arradoi
Itzuli polit horrek Erdi Aroko Donibane Garazi inguruko lehen gainaldeetara eramaten zaituzte. Irulegiko mahastietako lurra ezaugarritzen duten lur burdintsuetan ibiliko zarete. Ikuspegi zoragarria.

► **Jara**: zaila - 5,00 - 11,5 km - 620 m+. Abiatzea: Irulegiko elizako aparkalekua 
www.en-pays-basque.fr/randonnee/jara
Jara mendia 800 metroko goratasunean zabaltzen da, Baxenabarreko tontor enblematikoak salatuz. Bidean, 12. mendean Orreagako abadiako fraideek eraikitako priore-etxe ohia ikusiko duzue. Mahastia landatu zuten Donejakue bidean zebiltzan erromesei ezinbestekoa zitzaizen arnoa ekoizteko.



"BAIGORRI ETA IRULEGIKO MAHASTIA" BIZIKLETA ITZULIA

Abiatzea: Baigorriko Turismo Bulegoa
Bizikletari gazteentzat: zaila - 1,45 - 12,20 km - 242 m+
www.en-pays-basque.fr/activite/baigorri-et-vignoble-dirouleguy
Baigorriko Turismo Harrera Bulegoa
05 59 37 47 28 
baigorri@otpaysbasque.com

Bizikleta itzuli horren bitartez, 1952tik Irulegiko arnoen soto kooperatiba aterpetzen duen Baxenabarreko herri tipikoa ezagutuko duzue. Historia zeharkatuko duzue Irulegiko herria ezagutuz, 12. mendean Orreagako fraideek eraikitako priore-etxeari eta mahastia-ri izena eman zelararik. Lehen mahastia landatu zituzten fraide haiek berek..

BEGIRATOKIAK ETA ORIENTAZIO MAHAIAK

Beribilez helgarri, mahastietarako ikuspegi panoramikoarekin.

► **Irulegiko priore-etxea**: Google Maps aplikazioan, "Table d'orientation prieuré Irulégu" sartu.

► **Oronozia**: Google Maps aplikazioan, "Table d'Orientation Oronozia, Saint-Étienne-de-Baigorry" sartu.

► **Menta**: Google Maps aplikazioan, "Table d'orientation Menta, Irulégu" sartu.

► **Azkarate**: kasu, bide malkartsuasoilik lur orotako beribilez helgarri. Helmuga baino 300 metro lehenago gelditzea ahalikatzeko dizuegu, eta oinez bukatzea. Google Maps aplikazioan, "Table d'orientation Itarako Ascarat" sartu.



ARCÉ


630 Mixeleneko Bidea
64430 BAIGORRI
05 59 37 40 14 
reservations@hotel-arce.com
www.hotel-arce.com
60 leku

Hemen, sukaldaritzako familia-historia bat da eta artea aitatik semera transmititzen da. Jatetxe ospetsua den Arcé etxeak mokofinak loriatuko ditu zerbitzu bikaina eta euskal sukaldaritzako tipikoa eta sotilari esker. Sasoiaren arabera, Pascal Arcé bere antzea eskualdeko ekoizkin hoberekin ezkontzen ditu.

ART'ZAIN

Ospitaliako plaza, 20
64780 IRISSARI
05 59 37 23 83 
contact.art.zain@gmail.com
www.restaurant-art-zain.fr
100 leku

Ezagutu ezazue Henri Ames-toyren sukaldaritzako tradizioa la Art'Zain jatetxean, Irizarriko Ospitalearen ondoan. Sukaldeburi eta bere langile taldea herriaren bihotzean plantatu dira. Bertako produktuekin egindako sukaldaritzako proposatzen dizuete, urtaroen arabera aldatzen dena. Produktuen jatorria kartan ikus daiteke.



ASTEBURUA

694 Route d'Ihaordoqui
64780 ORZAITZE
06 46 41 01 83 
200 leku

Baigorritik oso hurbil Ortzaiz dagoen jatetxe honek gehienik bertako produktu freskoak lantzen ditu, jateko salatari ongi ikus daitekeen sukaldetan. Ahotik ezin utziak diren idiki saiheskiak, entrekostak, ahate bularko osoak edo zerri saihets hezurak jaten ahal dituzue hemen. Jaki horiekin biziki ontsa doazen Irulegiko arnoak eskaintzen dira ere.

AUBERGE OSTAPE

Chahatoenia Etxaldea
64780 BIDARRAI
05 59 37 91 91 
contact@ostape.com
www.ostape.com
70 leku

Maisu etxe batean, Ostape Ostatuan kokatzen da Lore Ttipia jatetxe gastronomikoa. Gutizien arabera, apairuak har daitezke terrazan, mendiei begira, edo jangelan lerrotatutako arrotz mahaien gainean. Jangelara daraman haritz sotoak Irulegiko mazelatoko eta beste hainbeste mahastietako arnorik ederrenak gordetzen ditu.

CAFÉ TTIPIA

Floquet plaza, 2
64220 DONIBANE GARAZI
05 59 37 11 96 
cafettipia@gmail.com
www.cafettipia.com
80 leku

Donibane Garazi hiriaren bihotzean, zatotze Ttipia kafetegia ezagutzera, sukaldaritzako soil eta gozoa dastatzeko lekua. Kartak entsaladak, bakailoa, aratxei axoa, bieirak, ihizak proposatzen ditu, urtaroen arabera. Lantalde profesionalak ikatz bizian erretako jakiak (erreak) proposatzen ditu, giro goxoan. Ttipia kafetegian, soiltasuna, lagun arteko giroa eta partekatze gogoia elkartzen dira.

CHAT PERCHÉ

11 Zitadelako karrika
64220 DONIBANE GARAZI
05 24 34 13 87 
54 leku

Le Chat Perché jatetxea Donibane Garaziko herri barnean dago. Bertan harrera oso atsegina eta beroa egiten da. Christophe sukaldariak artezki koinatutako jakiak dastatzeko dituzue, bakezko leku batean, non bazkaltzea edo afaltzea zinez goxo baita. Produktuak freskoak dira eta bertako ekoizleak dira bakarrik.

CHEZ KATINA

ESKUALDUNA
485 Geltokiko bidea
64780 ARROSA
05 59 37 71 72 
chezkatina@wanadoo.fr
www.chezkatina.fr
100 leku

1745ean eraikitako Eskualduna etxea beti familia berekoa izan da. Gaur egun, 3. eta 4. belau-naldiek harrera ona egiteko artea betikotzen dute. Etxearen lema: giro goxo, soiltasuna eta ekoizkinen errespetua. Menuak eta kartak jaki bereziak proposatzen dizkizue, hala nola usoa ehiza-saltsan, piperrada, bieirak ondoekin.

ERREGUINA

Iruñeko errepidea
64430 BANKA
05 59 37 40 37 
hotel@erreguina.com
www.auberge-pays-basque.fr
55 leku

Hemen, euskal gastronomia ohoretan da. Xabik bere sukaldaritzako ibarreko ekoizle tipiek apailatutako kalitatezko ekoizkinetan oinarritzen du. Urtaoren arabera, mokofinek jaki gozoak dastatzen ahalko dituzte, hala nola aratxei axoa, usoa ehiza-saltsan edota Bankako amurruarekin egindako eltzekaria, ardi gasna ahanzi gabe. Lekuan berean, usoen ehizan aritzen ahalko zarete.

MENTA OSTATUA

Esnazu auzoa
64430 ALDUDE
05 59 37 57 58 
www.ferme-auberge-menta.com
95 leku

Aldudeko ibarrean, Baigorritik 15 km-ra, Menta ostatuak jaki tradizioak eskaintzen dizkizue, gure etxaldean ekoizti bertako produktuekin koinatutako: zerriak, aratxeak, bildoskia, idikia eta abar. Irulegiko arnoak ere ezagutuko dituzue. Jatetxetik inguruko mendiez ikuspegi zoragarria dago.

GAMIA

Gamiako errepidea
64220 DUZUNARITZE
05 59 37 13 48 
restaurant.gamia@sfr.fr
www.restaurant-gamia.fr
240 leku

Euskal mendiaren bihotzean, familiako sukaldaritzako tradizioa dastatzeko duzue! Brunok eta bere taldeak sukaldaritzako tradizioa eta sotila proposatuko dizuete, kalitatezko tokiko ekoizketan oinarritua. Ibarrera eta Pirinioetara zabaltzen den ikuspegi eskaintzen duten gela eta terraza daude zuen esku. Sukaldeburiak formula egokituak proposatuko dizkizue.

JUANTORENA

913, Gaiñeko Karrika,
64430 BAIGORRI
05 59 37 40 78 
www.hotelrestaurantjuantorena.fr
130 leku

Baigorritik, Mélaniek eta Bixentek harrera beroa egiten dizuete lehengo ostaluen xarma guzira atxiki duen ostatu osoki berritu batean. Irulegiko arnoekin biziki ontsa doazen etxaldeko eta bertako produktu hoberekin koinatu eskualdeko jakiak dastatzeko dituzue.

LE KORTXO

Herriko etxe plaza
64430 BAIGORRI
05 47 71 20 27 
www.kortxo.fr
28 leku

Baigorri herriaren bihotzean, Iparla tontor-lerroaren oinean, Kortxo jatetxeak sukaldaritzako bistro-nomiko bat proposatzen dizue: hasteko jakiak eta azkenburukoak neurri bereko hiru zatitan aurkeztuak zaizkizue, partekatze aukera eskaintzeko. Kanpoko terrazak haurrendako parkerako eta euskal mendirako ikuspegi ederra eskaintzen dizuete.

LES PYRÉNÉES

19 Charles de Gaulle Plaza
64220 DONIBANE GARAZI
05 59 37 01 01 
hotel.pyrenees@wanadoo.fr
www.hotel-les-pyrenees.com
40 leku

Donibane Garazin, ARRAMBIDE familiak bezeroak errezibitzen ditu zaldi karrosendako ostatu ohi batean kokatutako jatetxe gastronomikoan. Sukaldeburiak bere antzea mokofinen zerbitzuko ezartzen du. Tokiko eta beste eskualdeetako arno gorenak proposatuak izanen zaizkizue. Jatetxea "Les Collectionneurs" katearen kide da eta "Michelin" gidaliburuan sailkatua da.

PECOITZ

Plazako bidea, 37
64220 AINTZILA
05 59 37 11 88 
pecoitz@wanadoo.fr
www.hotel-pecoitz-pays-basque.com
120 leku

Pecoitz jatetxeak sukaldaritzako tradizioa proposatzen dizue. Udaberriko egun ederretatik goiti, mendirako ikuspegi eskaintzen duen terraza itzaltzuz gozatzen ahalko duzue. Jatetxeko jangela koloretzuan aire girotua bada. Eskualdeko berezitasunak ezagutu: ahate gibel gizona, onddo moleta, pikilloak bakailoarekin, zerri-zangoak, esneko bildoskia... Berezitasuna: usoa ehi-za-saltsan.

XOKO GOXOA

17 Ezterenzubiko Bidea
64220 EIHERALARRE
05 59 37 06 34 
contact@hotel-xoko-goxoa.com
www.xoko-goxoa.com
65 leku

Hemen sukaldaritzako gozoa da, eskualdekoa, herriko ekoizkinen aniztasunean oinarritua (gatzikiak, arrainak, herriko haragiak, gasnak...) eta arno tipikoekin zerbitzatua, ostalariei zuei ezagutaraztea laketa zaila. Jatetxeko gelak inguruko mendietara ematen du. Uda-berriko egun ederretatik goiti, terrazan jarriko zarete, Errobi ibaiaren xuxurlak goxaturik.



OSTATALEKUAK

HOTELAK:

ARCÉ HOTELA ****

630 Mixeleneko bidea
64430 BAIGORRI
05 59 37 40 14 
reservations@hotel-arce.com
www.hotel-arce.com
20 logela

Donibane Garazitik 10 kilometrotara, xarma handiko hotelak lore baratzera, errekarra edo Pirinioetara ematen duten logela dotoreak ditu. Logeletan, pantaila lauko telebistak eta bainugela pribatuak badira. Batzuek balkoia ere dute. Zenbait zerbitzu proposatuak zaizkizue: padel zelaia, igerileku berotua, petanka zelaia, bizikletak. Zakurrak ez dira onartuak.

CHEZ KATINA HOTELA ESKUALDUNA **

485 Geltokiko bidea
64780 ARROSA
05 59 37 71 72 
chezkatina@wanadoo.fr
www.chezkatina.fr
36 logela

Hotela hegoalderekiko mugatik 17 kilometrotara kokatua da eta Biarritzetik 45 minututara. Baigorri eta Donibane Garazirako bideen artean, Lagourgue familiak xarma handiko hotellean errezibituko zaituzte, aietasun guzietan.



ERREGUINA HOTELA **

Iruñeako errepidea
64430 BANKA
05 59 37 40 37 
hotel@erreguina.com
www.erreguina.com
16 logela

Mendien oinean kokatua, Al-dudeko ibarrean, ostatu horrek bere ateak irekitzen dizkizue. Natura eta eremu zabaleko zaleak bazarete, zuentzat egina da! 1952an sortutako familiako etxe horrek guztiz zaindutako 16 logela soil eta eroso ditu. Logela bakoitzean, bainugela, komunak eta wifia bada. Batzuek mendira ematen dute.

LES PYRENEES HOTELA ****

19 Charles de Gaulle plaza
64220 DONIBANE GARAZI
05 59 37 01 01 
hotel.pyrenees@wanadoo.fr
www.hotel-les-pyrenees.com
18 logela

Ipar Euskal Herriaren bihotzean, Zitadelatik hurbil kokatutako ostatu ohi batean errezibituak izanen zarete. Hotelak estilo garaikidez apaindutako logelak aurkezten ditu. Denek mendirako ikuspegi paregabea eskaintzen dute, eta telebista, wifia eta aire girotua dute. Jatetxea "Châteaux et Hôtels Collection" katearen kide da eta "Michelin" gidaliburuan sailkatua da.

AUBERGE OSTAPE HOTELA ****

Chahatoenia etxaldea
64780 BIDARRAI
05 59 37 91 91 
contact@ostape.com
www.ostape.com
22 logela

Berdegune eder baten erdian, Baxenabarreko arkitektura tipikozko 5 etxek dute OSTAPE ostatuaren jabegoa osatzen. Ikuspegi harrigarri horren bihotzean, logelarik ez, suiteak baizik, apainketa paregabea eta zaharkitegiaren artoski maitutako altzariek.

JUANTORENA HOTELA ****

913 Gaineiko karrrika
64430 BAIGORRI
05 59 37 40 78 
contact@hotelrestaurantjuantorena.fr
www.hotelrestaurantjuantorena.fr
15 logela

Euskal Herriaren bihotzean, Baigorri, 15 gelako hotel honetatik biziki ikuspegi ederra dago inguruko mendietara. Kartan, bertako eta urtaroren araberako (arrainen hauta, heltzearen arabera) produktuekin kozinatu jakiak eskaintzen dira. Jaki tradizionalak dastatuko dituzue, eta, hala, lurreko eta itsasoko zaporeek papilak piztuko dizkizue. Jakiak biziki ontsa doaz proposatu lrulegiko arnoekin.

PECOITZ HOTELA **

Plazako bidea, 37
64220 AINTZILA
05 59 37 11 88 
pecoitz@wanadoo.fr
www.hotel-pecoitz-pays-basque.com
9 logela

Pecoitz hotelak logela eroso eta handiak proposatzen dizkizue, mendirako eta lrulegiko mahastirako ikuspegi panoramikoa eskainiz. Familiako etxe horretan, etxean bezala sentituko zarete eta harrera bikaina egina izanen zaizue.

XOKO GOXOA HOTELA **

17 Ezterenzubiko errepidea
64220 EIHERALARRE
05 59 37 06 34 
contact@hotel-xoko-goxoa.com
www.xoko-goxoa.com
13 logela

Herri tipiko batean, berdegune baten erdian, Goxoa landa-hotel bat da, errekarra ematen duen lore baratze itzaltzu batekin. Terrazak mendietarako ikuspegi eskaintzen du. Logeletan, pantaila lauko telebistak badira. Zurezko altzariez apainduak dira eta herrira edo mendira ematen dute. Jatetxeak tokiko ekoizketan oinarritutako eskualdeko berezitasunak proposatzen ditu.



ARROTZ GELAK:

DOMAINE MOURGUY

75 impasse Heguitoa
Mourguy jabegoa
64220 IZPURA
06 78 84 89 25
domainemourguy@hotmail.com
www.domainemourguy.com
4 logela

Lasaitasunean, etxe eder horrek bere terraza zoragarria proposatuko dizue, bertan gosaria zerbitzatuz. Mahastirako ikuspegi paregabeak Irulegiko arno famatua dastatzera gomitatuko zaituzte, etxaldean berean arnotua delarik. Hiru oheko logelak, mezzanine eta bainugelarekin, gai desberdinen arabera apainduak dira: mahastizaina, artzaina, erromesa eta Irulegiko arrosa koloreko gela. Bereiz den 3 izarreko landetxe bat ere aloka daiteke.

IPUTXAINIA

D303
64220 AZKARATE
06 89 66 43 45
jean@respyrenees.com
www.maison-iputxainia.com
5 logela

Donibane Garazitik hurbil-hurbil, aisetasun guziak aurkituko dituzue Iputxainiako arrotz getan (igerileku berotua, jacuzzi, irakurketa gela...), baita arrotz mahai zerbitzu bat ere, laborantza ekologikoan ekoiztutako tokiko eta etxeko ekoizkinekin apailatuak.de produits biologiques, locaux et faits maison.



TALDE ATERPETXEA:

ORONOSIA ATERPETXEA

156 Tokilepoko bidea
64430 BAIGORRI
06 71 84 24 94
gitedegroupe.oronozia@wanadoo.fr
www.domaine-oronozia.com
95 ohe - 28 logela
2 hektareako parke baten bihotzean, biziki ikuspegi ederrarekin inguruko Irulegiko mahastieta- ra, mahastizain familia batek kudeatzen du Oronozia. Aterpetxeak, gainera, azpiegitura anitz eskaintzen ditu, hala nola igerilekua edo ping-pong mahaiak. Aterpetxeak hainbat formula eskaintzen ditu, mantenu erdiarekin eta mantenu osoarekin. Oronozia aterpetxea gutenez 12 pertsonako taldeentzat bakarrik da

KANPALEKUAK:

AMESTOYA **

740 Amestoiko bidea
64780 BIDARRAI
05 59 37 25 81
contact@camping-bidarray.fr
www.camping-bidarray.fr
30 leku

Hemen, baserrialdean, egonaldi ezin hobe baterako lekua aurkituko duzue, mendien oinean eta erreken bazterrean, Baionatik 35 km-tara eta Donibane Garazitik 20 km-tara. Bidarrain kokatua, gure kanpalekuak errezibitzen zaituzte lagun artean, familian, taldean, Ipar Euskal Herriko eskapaldi baten denboran. Kanpalekuak proposatzen dituen ur bizietako jardueretan aritzen ahalko zarete, eskualdea bisitatu eta ibilketan aritu.



IRULEGI HERRIKO KANPALEKUA**

166 Sotoreko bidea
64430 BAIGORRI
05 59 37 43 96
camping.baigorri@orange.fr
www.animazioa5.wixsite.com/
camping-de-baigorri
69 leku

Baigorriko sartzean eta GR10 errepidearen oinean dago kanpina, Irulegiko mahastien bihotzean. Irulegi Sotoko kooperatibaren ondo-ondoan dago. Kanpalekua erreka bazterrean dago, ingurune berde eta itzaltsuan, herriko igerilekutik, kiroldegitik, supermerkatu batetik eta garagardotegi batetik biziki hurbil. Kanpinaren sartzean, autokarabanak hartzeko ekipamenduak izanen dira laster (hustuketa gunea).

LANDETXEAK - ALOKAIRU MUBLATUAK

APELXENIA APARTEMENDUA**

Apelxenia Borda
64220 AZKARATE
06 85 17 40 43
mirenax@hotmail.fr
www.maison-apelxenia-ascarat.fr
2 logela

Anniek Baxenabarreko arkitektura tipikoko landetxean errezibituko zaituzte, etxaldekik bereiz delarik. Laborariak (behi hazkuntza) eta mahastizainak diren etxeko jaun-andereek beren lanbidearekiko errabia partekatuko dute zuekin eta JDK arno indartsu eta emankorra ezagutaraziko dizute. Terraza estalia eta lore baratzea abantailazko lekuak dira, mendirako ikuspegi zabalarekin.

OLHARGIA LANDETXEAK ***

124 Xerrako Bidea
64220 DONAZAHARRE
05 59 49 18 22
bordatto@orange.fr
www.gites64.com/fiche-64G131179.html
6 logela

Mendien oinean kokatutako landetxea da, Donejakue bideko ibilketa xendretatik hurbil. Pascale eta Bixintxo mahastizain eta sagarno egileak dira, laborantza biologikoan, Jatsuko Bordatto etxaldean: Irulegi JDK, eskualdeko arnoak, sagarnoak eta sagar zuku arnotuak. Gogotik errezibituko zaituztete urteko uztak dastarazteko eta kontzertu/arno edantegi gaualdiak proposatuko dizkizute udako ostiraletan.



GARAIA*** ETA BELORRIA*** ATERPETXEAK

64220 DONAZAHARRE
8 IZPURA
06 78 84 89 25
domainemourguy@hotmail.com
www.domainemourguy.com
Landetxe bakotxa: 6 pertsona
Mourguy etxaldearen jabeak Donibane Garazitik hurbil dituen bi aterpetxeetarik batean hartzen ahal zaituzte. Bi aterpetxeetatik biziki ikuspegi ederra dago mendi-mazelan landatu Irulegiko mahastira eta Arradoiko mendiaren kasko biribilera. Mahastizain andreak bere jakintzen eta zaletasunaren berri ematen ahalko dizue. Inguruan ibilaldi politak egiteko parada ere izanen duzue.

LUCU LANDETXEAK ** et ***

64430 BAIGORRI
06 79 07 15 38
maite.lucu@free.fr
www.gitespaysbasque.com
Edukiera: 4 eta 12 pertsona artean (landetxearen arabera)
Maitek eta bere familiak atseginez errezibituko zaituztete nortasun handiko 5 landetxeetarik batean, Ipar Euskal Herriaren bihotzean kokatua, mendien oinean. Bakoitzak badu terraza eta lore baratzea, egonaldi lasai eta goxo baterako. Spa erabiltzen ahalko duzue, erreserbatuz, lasaitzeko eta hats hartzeko.
Mahastizaina den Maitek eskualdea bisitatzen lagunduko zaituzte eta laborantza- eta arnogintza-etxaldeko bizitza erakutsiko dizue.







www.irulegi-iparraldeko-mahastia.eus



Baigorriko Turismo bulegoa

05 59 37 47 28

baigorri@otpaysbasque.com



ALKOHOL GEHIEGIKERIA OSASUNERAKO KALTEGARRIA DA. NEURRIZ EDAN.